

HONDARRIBIKO KIROL PORTUAN MAKINAK HORNITU, INSTALATU ETA MARTXAN JARTZEAREN ESLEIPENA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ZUZENDUKO DUEN KLAUSULA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN AGIRIA (ITSAS ATARI AUTOMOTOREA)

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Klausula Ekonomiko-Administratibo Agiri honen xedea itsas atari automotorearen hornikuntza, instalazioa eta martxan jartzea kontratatzekeo jarraitu beharreko prestazioen hedapena eta baldintzak erregulatu eta zehaztea da, Baldintza Teknikoen Agirian (BTA) jasotako terminoetan.

2.- KONTRATATZEN DUEN ENTITATEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Kontratatzeko duen entitatea EUSKADIKO KIROL PORTUA,SA da (aurrerantzean, EKP).

Kontratazio Organoa Euskadiko Kirol Portua, Saren Zuzendaritza da, hala badagokio eta ezar daitezkeen zuzenbide pribatuko arauen arabera, kontratuarekin lotutako jarduerak zehatzak gauzatzeko egokitzat jotzen dituzten pertsonen eskumena eman ahalko diola.

3.- ESLEIPEN PROZEDURA

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko zaio, ohiko izapidearen bidez, ekonomikoki abantaila handien dituen eskaintzari, Agiri honen 12. Klausulan ezarritako balorazio irizpideen arabera.

4.- KONTRATUAREN DOKUMENTAZIOA

Kontratu izaera izango dute, egindako esleipena dela eta egiten den kontratuaz gain, Klausula Ekonomiko-Administratibo honek, Baldintza Teknikoen Agiriak eta esleipendunak aurkezten duen eskaintzak.

Dokumentu horiek esleipendunak sinatu beharko ditu horiekin ados dagoela frogatzeko, kontratua formalizatzeko momentuan.

5.- AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA ETA INSTALAZIOA ETA MARTXAN JARTZEA

Emate, instalazio eta martxan jartzeko gehieneko epea kontratua sinatzenetik 45 egun naturalekoa izango da.

Epe hori eskaintzaileek euren eskaintzetan murriztu ahalko dute.

Emateko lekua Hondarribiko kirol portuko ontzitegia izango da.

Hornikuntza instalatu eta martxan jarri ondoren, eta EKPa dagokion egiaztapena egin ondoren, harrera egingo da, emate eta martxan jartzeko aktaren dokumentua sinatuz.

6.- LIZITAZIOAREN GEHIENEO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALORE ZENBATESIA

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua 190.000 eurokoa da, BEZ gabe.

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua eskaintzaileek aurkeztutako proposamen ekonomikoan murriztu ahalko da, baina ezingo da inolaz ere prezio handiagoa eskaini.

Eskaintzaileek eskainitako prezioaren barruan hornikuntza, instalazioa eta martxan jartzeari lotutako kontzeptu oro daudela ulertuko da, hala nola, ematea, garraioa eta aseguruak, eta langileei dagozkien gastu oro (soldatak, Gizarte Segurantzaren oporrak eta ez-ohiko soldatak, baja edo gaixotasunagatikordezkapenak, banakako istripu aseguruak, etab.) eta lekualdatze eta egoitza kostuak, hala badagokio egin beharrekoak, baita tasa ofizialen eta jarduera egiteari dagozkion beste gastu edo tributatuak, BEZ kanpo, aurkezten den eskaintzaren partida independente bezala adieraziko dena.

Eskaintzaileek EKPk ordaindu beharreko BEZa partida independente bezala adierazi beharko dute.

Kontratuaren zenbatetsitako balore osoa, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 88. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako (aurrerantzean, SPKLTB), 190.000 eurokoa da, BEZ gabe.

7.- PREZIOA ORDAINTZEA

Kontratastak prezioa ordaintzeko eskubidea izango du EKPri hornikuntza eman, instalatu eta martxan jarri ondoren, aurretik emate eta martxan jartzeko akta sinatuta.

Ordainketa enpresa esleipendunak dagokion faktura aurkeztu ondoren egingo da, emate eta martxan jartzeko akta sinatzen denetik 5 eguneko epean, eta EKP ados dagoela harrera egin ondoren.

Prezioa EKPk ordainduko du emate eta martxan jartzeko akta sinatu eta 30 egunera, faktura aurreko paragrafoan igorri eta EKPre oniritzia badu.

8.- PUBLIZITATEA

Kontratuaren lizitazioa zein esleipena Euskadiko Aldizkari Ofizialean eta EKPre kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

Profil horretarako sarrera ondorengo Web orriaren bidez egingo da:

www.ekpsa.eus.

Publizitatearen kopurua esleipendunaren kontura izango da.

9.- BEHIN BETIKO BERMEA

Esleipendunak, betebeharrak betetzen direla bermatzeko, kontratua esleitzeko kopuruaren %5eko behin betiko bermea sortu beharko du, BEZ gabe.

Ekonomikoki abantaila gehien duen eskaintza aurkeztu duen eskaintzaileak berme hori hamar laneguneko epean aurkeztu beharko du, EKPk horretarako egindako errekerimendua jasotzen duen egunaren hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

SPKLTBren 96. artikuluan ezarritako edozein bidetik osatu ahalko da.

Bermea osatu izanaren egiaztapena ezingo da bide elektronikoen bidez egin.

Bermea SPKLTBren 102. artikuluan ezarritakoaren arabera itzuliko da, garantia epea igaro eta esleipendunak kontratu betebeharrak guztiak bete ondoren.

Behin betiko garantiaren gainean esleipendunari exijitutako zigor edo kalte-ordainak eraginkorrak izan ondoren, honek hura berrezarri edo zabaldu beharko du, dagokion kopuruarekin, gauzatu eta hamabost egun naturaleko epean, eta ez egitekotan ebazpenerako arrazoia izango da.

Kontratua aldatzearen ondorioz haren prezioa aldatuko balitz, garantia aldatutako prezio berriarekin dagokion proportzioa izateko berregokitu beharko da, enpresarioari aldaketa akordioa jakinarazten zaionetik hamabost egun naturaleko epean.

Klausula honetan aurreikusten ez denerako, SPKLTBren 95. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituko zaio.

10.- PARTE HARTZEKO ARAU OROKORRAK

EKPrekin, jarduteko gaitasuna duten, kontratatzeke debekurik ez duten eta kaudimen ekonomiko eta finantzieroa eta tekniko edo profesionala egiaztatzen duten pertsona natural edo juridikoak, espainolak edo atzerritarrak, kontratatu ahalko dute.

Esleipendunek kontratuaren xedea den jarduera edo prestazioa egiteko exijitu daitekeen gaitasun profesional edo enpresaritzaren gaitasuna izan beharko dute, eta aldi baterako laneko enpresen gaitasun profesionala ez da onartuko.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendunak izan ahalko dira bakarrik jardueraren xede edo eremuaren barruan dauden prestazioak berezkoak zaizkienean, Estatu edo fundazio arauen arabera.

EKPrekin kontratatzeke gaitasuna izango dute espainiarrak ez diren baina Europar Batasuneko kide diren Estatuak, ezarrita dauden Estatuaren legediaren arabera prestazioa egiteko gaitasuna dutenak, eta SPKLTBren 58. artikuluan aurreikusitakoa ezarri ahalko da.

Enpresa hauek ezarrita dauden Estatuaren legediak baimen berezia edo zerbitzua emateko organizazio zehatz batekoa izatea exijitzen duenean, irizpide hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Europar Batasunekoak ez diren Estatuetakoa pertsona fisiko edo juridikoek dagokion Estatuan Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorreko txostenaren bidez jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurralde eremuko Kontsulatuaren Bulegoarena. Txosten horren bidez egiaztatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak Administrazioarekiko eta SPKLTBren 3. artikuluan zerrendatutakoei lotu ahal zaizkien sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateei kontratazioan enpresa espainiarrek parte hartzea onartzen duela, oinarrian analogoa den moduan.

EKPrekin horretarako denbora baterako sortzen diren enpresaritzaren batasunak kontratatu ahalko dute, horiek eskritura publikoan gauzatzeko beharrik gabe kontratuaren esleitzea bere alde gauzatu gabe, eta SPKLTBren 59. artikuluan aurreikusitakoa ezarri ahalko da.

Eskaintzaileek ondorengo kaudimen ekonomiko eta finantzieroa eta teknikoa edo profesionala dutela egiaztatzea beharko dute:

- Urteko negozio bolumena izan kontratuaren xede den eremuan, behintzat kontratuaren zenbatetsitako balorearen bikoitzarena, azken hiru ekitaldietako handiengan (urteko kontuan onartzeko betebeharra gainditu denean).
- Hornitu beharreko ekipoaren egilea izatea, eta azken hiru urteetan kontratuaren xedea denaren ezaugarriak dituen hornikuntza 1 behintzat egin izana.

11.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Eskaintza aurkezteak enpresariak Agiri hau eta Baldintza Teknikoen Agiria baldintzarik gabe onartzea dakar.

Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria eskuragarri egongo dira EKPrekin kontratatzailearen profilean proposamenak aurkezteko epe osoan zehar.

Lizitazioan parte hartzeko, eskaintzaileek **eskura** aurkeztu beharko dute, EKPrekin bulegoetan (Gasteiz) 9:00etatik 13:30ak arte, **Euskadiko Aldizkari Ofizialean lizitazio iragarkia argitaratzen denetik 30 egun naturaleko epean**, hiru gutun-azal itxi, ondoren adieraziko den dokumentazioarekin, bertan enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta egiteko izaera, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa. Guzti hori irakurtzeko moduan.

Gutun-azal bakoitzaren atzealdean honako inskripzioa agertuko da: "*Lizitazioan parte hartzeko proposamena, prozedura irekiaren bidez, itsas atari automotorearen hornikuntza, instalazio eta martxan jartzea kontratatzeko*", baita dagokion zenbakia ere (1. gutun-azala, 2. gutun-azala, 3. gutun-azala, dagokionaren arabera).

Gutun-azal bakoitzaren edukia, barruan orri independente batean adierazi beharko dena, ondoren adierazten diren dokumentuak izango dira:

1. gutun-azala.- "GAITASUN ETA KAUDIMEN IRIZPIDEAK"

- a) -Gutun-azalean dagoen dokumentazioaren zerrenda zenbatua, orri independente batean, baita jakinarazpenak jasotzeko lehentasuna duen bidearen adierazpena ere, agiri honetan **I. Eranskina** bezala sartutako eredura egokituko dena.
- b) -Enpresarioaren nortasuna eta jarduteko gaitasuna egiaztatzen duten dokumentuak eta, hala badagokio, bere ordezkariarenak.

Pertsona juridikoak diren enpresarioen jarduteko gaitasuna osaketa eskritura edo dokumentuaren, Estatutuen edo fundazio jardunaren bidez egiaztatuko da. Horietan, jarduera erregulatzen duten arauak agertuko dira, dagokion Erregistro Publikoan egoki inskribatuta egongo direnak, pertsona juridiko motaren arabera.

Espainolak ez diren baina Europar Batasuneko kide den Estatu batekoak diren enpresarioen jarduteko gaitasuna ezarrita dauden Estatuaren legediaren arabera Erregistroan izen emate egoki baten bidez egiaztatuko da, edo zinpeko aitorten baten edo egiaztagiriri baten bidez, ezar daitezkeen xedapen komunitarioen arabera.

Gainontzeko enpresari atzerritarren jarduteko gaitasuna dagokion Estatuan Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorreko txostenaren bidez jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurralde eremuko Kontsulatuaren Bulegoarena. Txosten horren bidez egiaztatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak Administrazioarekiko eta SPKLTBren 3. artikuluan zerrendatutakoei lotu ahal zaizkien sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateei kontratazioan enpresa espainiarrek parte hartzea onartzen duela, oinarrian analogoa den moduan.

Pertsona fisikoak diren enpresarioen jarduteko gaitasuna Nortasun Agiri Nazionala edo euren Estatuko baliokidea aurkeztuz egiaztatuko da.

Beste baten izenean agertzen direnak edo proposamenak sinatzen dituztenek Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztu beharko dute, baita horretarako nahikoa botere ere. Ordezkatutakoa pertsona juridikoa balitz, boterea Merkataritza Erregistroan izena emanda egon beharko da, Merkataritza Erregistroaren Araudiaren 94. artikuluan horrela aurreikusten denean edo, hala badagokio, pertsona juridiko motaren arabera dagokion Erregistro Publikoan.

Lizitatzailerik exijitutako dokumentu originalak edo horien kopiak aurkeztu ahalko dituzte, konpultsatuta edo egiaztatuta.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatutako Lizitatzailerik eta Klasifikatutako Enpresen Erregistro Ofizialean izena emanda dauden lizitatzailerik Erregistroko arduraduna den abokatuak igorritako izen ematearen indarrean dagoen ziurtagiriaren kopia aurkeztu ahal izango dute b) atalean errekeritutako informazioaren ordez. Izena ematearen ziurtagiriarekin batera lizitatzailerik sinatutako erantzukizun aitortpena aurkeztu beharko da, zeinaren bidez dokumentuan islatutako egoerak aldatu ez direla adieraziko den.

c) **-II. Eranskinaren** eredura egokitutako erantzukizun aitortpena, lizitatzailerik SPKLTBren 60.1 artikuluan ezarritako kontratatzeke debekurik ez duela aitortzen duena.

Atzerriko enpresen kasuan, aipatutako erantzukizun aitortpen horretan edozein Epategi eta Auzitegi espainiarraren jurisdikzioaren menpe daudela dion berriazko aitortpena egin beharko dute, I. Eranskinean adierazitako moduan, kontratutik modu zuzen edo ez-zuzenean sor daitezkeen gorabehera guztientzat, eta hala badagokio, lizitatzailerik dagokion atzerriko foru jurisdikzionala ukatu beharko dute.

Era berean, enpresa lizitatzailerik beste enpresa lizitatzailerik talde berdinekoa bada (Merkataritza Kodearen 42. artikuluen kasuren batean daudenak), c) atalari erreferentzia egiten dion aitortpenean egoera hori adieraziko da, taldeko beste enpresa lizitatzailerik identifikatuz I. Eranskinean aurreikusitako moduan.

d) -Enpresari ugarik aldi baterako batasun batean lizitazioan parte hartu nahi izatekotan, osatuko duten guztiek aurkeztu beharko dute c) atalak dion aitortpena.

Modu osagarrian, guztiek sinatutako dokumentu pribatu bat aurkeztu beharko dute, osatzen dutenen izen eta egoerak eta bakoitzaren parte hartzea adieraziz, baita

esleipendunak badira aldi baterako batasun formala osatuko dutenaren konpromisoa onartzen dutela ere.

e) -Enpresarioaren kaudimen ekonomiko eta finantzieroa eta tekniko eta profesionala egiaztatzen duten ziurtagiriak, 10. Klausulan aurreikusitakoari jarraiki.

Enpresarioaren kaudimen ekonomiko eta finantzieroa eta tekniko eta profesionala ondorengo bideetatik egiaztatuko da:

- Urteko negozio bolumenari buruzko aitortpena, kontratuaren xede den eremuan, behintzat kontratuaren zenbatetsitako balorearen bikoitza duela egiaztatzen duena, azken hiru ekitaldietako handiengan (urteko kontuan onartzeko betebeharra gainditu denean).
- Azken hiru urteetan egindako hornikuntza nagusien zerrenda, kopurua, datak eta horien hartzaile publiko edo pribatua barne hartzen duena. Era berean, kontratuaren xedea den hornikuntzaren egilea dela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Atzerriko enpresek dokumentazioa gaztelaniara edo euskarara itzulita aurkeztuko dute.

EKPk egokitzat jotzen dituen egiaztatze lanak egiteko edo beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarri guztia exijitzeko eskubidea du, lizitatzailleek aurkeztutako informazioaren egiazkotasuna ziurtatzeko.

Oharra: EKPk aurkeztutako dokumentazioan konpondu daitezkeen akats edo gabeziak topatzen baditu, horiek konpontzeko hiru laneguneko gehieneko epea emango du.

2. gutun-azala.- "PROPOSAMEN TEKNIKOA"

Proposamen Teknikoak hornitu beharreko deskribapen xehatuaren memoria izango du, xehatutako ezaugarri eta zehaztapenak adieraziz, baldintza teknikoen agirian horretarako aurreikusitakoa betetzen duena. Modu berean, enpresa eskaintzaileak ekonomikoki kuantifikatutako eskainitako kalitate hobekuntzen edo handitzeen zerrenda izango du, eta enpresa eskaintzailearen kokapen aitortpena, baita bezeroaren arretarako eskuragarritasuna eta baliabideak ere.

3. gutun-azala.- "PROPOSAMEN EKONOMIKOA, EMATE, INSTALAZIO ETA MARTXAN JARTZEKO EPEA ETA GARANTIA"

Proposamen ekonomikoa agiri honetan III. Eranskin bezala atxikitako ereduari egokituko zaio.

Modu berean, aipatutako III. Eranskinak emate, instalazio eta martxan jartzeko epea barne hartuko du, baita hornikuntzaren garantia epea ere. Edozelan ere, epe horiek agiri honen 5. eta 25. Klausuletan ezarritako epeak errespetatu beharko dituzte.

12.- BALORAZIO IRIZPIDEAK

Hauek izango dira balorazio irizpideak, dagokien haztapenarekin batera adierazitakoak:

A) Proposamen teknikoak

Gehienez 30 puntura arte.

Hauxe baloratuko da:

- Ekipoaren ezaugarrien egokitasuna, baldintza teknikoen agiriaren arabera (15 puntura arte).
- Hala badagokio, kalitatea handitzeko hobekuntzak, ekonomikoki kuantifikatuak edo agiri honetan edo baldintza teknikoen agirian aurreikusitakoaren gaineko prestazio osagarriak, kontratuaren xedearen ezberdinak diren jardueri dagozkien alderdiak baloratu gabe, ezta kontratuaren hedapena handitzea dakartenak ere. (5 puntura arte).
- Zerbitzuaren gertutasun, portura 4 ordu baino gutxiagotan heltzeko ahalmena (10 puntura arte)

B) Proposamen ekonomikoa, emate, instalazio eta martxan jartzeko epea eta garantia epea

Gehienez 70 puntura arte.

B.1) Eskaintza ekonomikoa: 40 puntura arte

Puntuak honela esleituko dira:

$$P = [40] \times \frac{\text{Gutxieneko eskaintza}}{\text{Lizitzailearen eskaintza}}$$

Lekua:

P= Baloratzen ari den lizitzaileak lortutako puntuazioa.

Gutxieneko eskaintza = onartutako eskaintza baxuenaren kopurua.

Lizitzailearen eskaintza = baloratzen den eskaintza ekonomikoaren kopurua.

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua hobetzen ez duten eskaintzek atal honetan zero (0) puntu lortuko dituzte.

Balore ez-ohikoa edo proportziorik gabekoa duen eskaintzat joko da lizitazio aurrekontuarekin alderatutako beherapen kopurua %8 baino handiagoa duen eskaintza ekonomikoa. Kasu honetan ekipo teknikoak kontratazio organoari jakinaraziko dio, egokitzat jotzen dituen justifikazio txosten guztiekin batera.

Ez-ohiko edo proportziorik gabeko izaeraren aitortpenak ustez bertan sartuta daudenei informazioa eskatzea ekarriko du, dagokion zerbitzuaren aholkularitza tekniko eta kontratazio ekipo teknikoaren txostena.

Kontratazio organoak, lizitzaileak egindako justifikazioa eta SPKLTBren 152.3 artikuluetan adierazitako txostenak aintzat hartuta eskaintza egoki bete ezin dela ulertuko balu, aurkeztutako proposamena baztertua adostuko du.

B.2) Emate, instalazio eta martxan jartzeko epea: 20 puntura arte

Puntuazio handiena lortuko du murrizketa handiena lortzen duen eskaintzak (gehienez 10 puntura arte) eta 0 puntu jasoko dituzte Agiri honen 5. Klausulan ezarritako emate, instalazio eta martxan jartzeko gehieneko epea hobetzen ez duten eskaintzek, eta gainontzekoei puntuazioa ondorengo formularen arabera emango zaie:

Eskaintako epea murriztea (egunak) x 20

$$\text{Puntuazioa} = \frac{\text{Eskaintako epearen gehieneko murriztea (egunak)}}{\text{Eskaintako epearen gehieneko murriztea (egunak)}}$$

B.3) Garantia epea: 10 puntura arte

Puntuak honela esleituko dira:

$$P = [10] \times \frac{P_g n}{P_{gmax}}$$

Lekua:

P = Baloratzen ari den lizitazaileak lortutako puntuazioa.

P_{gmax} = Onartutako eskaintzen artean garatia epe luzeena.

P_{g n} = Baloratzen den eskaintzaren garatia epea.

Agiri honen 25. Klausulan ezarritako garantiaren gutxieneko epea hobetzen ez duten eskaintzek zero (0) puntu jasoko dituzte atal honetan.

13.- PROPOSAMENEN IREKIERA

Teknikariek aurretik kalifikatuko dituzte 1. gutun-azalean aurkeztutako dokumentuak (Gaitasun eta kaudimen irizpideak), denboran eta moduan, eta konpondu daitezkeen akatsak edo gabeziak daudela ikusiko balute, lizitazaileak horiek konpontzeko hiru laneguneko gehieneko epea emango dute. Konpondu beharreko akats edo gabezien jakinarazpena helbide elektronikoz egingo da lizitazaileak I. Eranskinean adierazitako helbide eta bidera.

Bide hau jakinarazpen guztientzat erabiliko da, bide osagarriak erabiltzeari kalterik egin gabe.

Dokumentazioa kalifikatu eta egon daitezkeen akats edo gabeziak konpondu ondoren, 2. gutun-azala irekiko da (proposamen teknikoa). Ondoren, teknikariek horiek aztertu eta baloratuko dituzte, dokumentu honetan ezarritako irizpideen arabera eta jasota geratuko da.

Teknikariek beharrezkotzat jotzen dituzten txosten guztiak eskatu ahalko dituzte, proposamena egin aurretik.

3. gutun-azalaren irekiera (proposamen ekonomikoa eta modu automatikoan ebaluatu daitezkeen beste irizpide batzuk) jarduketara publikoan egingo da EKPre

kontratatzailearen profileen adierazitako leku, data eta orduan. Jarduketa publikoa abiaraztean, bertaratuei proposamen teknikoaren balorazioaren emaitza emango zaie.

Teknikariek proposamenak irakurri ondoren, APKLEOren 84. artikuluan aurreikusitako kausaren batean daudenak baztertuko ditu.

Proposamen ekonomikoaren jarduketa publikoa amaitu ondoren, horien azterketa eta balorazioa abiaraziko da.

Teknikariek Kontratazio Organora aurkeztutako proposamenen zerrenda bidaliko dio, goitik beherako hurrenkeran, 12. Klausulan ezarritako balorazio irizpideak jarraiki, eta abantaila gehien dituen eskaintza identifikatuko du.

EKPk beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahalko ditu, proposamena egin aurretik.

Teknikariek abantaila gehien duen proposamena identifikatzeak ez du EKPrean aurrean lizitatzailaren eskubiderik sortuko.

14.- KONTRATUAREN ESLEIPENA

Esleipenerako hautatutako lizitatzaila aukeratzeko, Kontratazio Organoak teknikariek egindako proposamenari egokituko zaizkio orokorrean. Bestela, Kontratazio Organoak proposamenetik aldentzeko erabakia arrazoi beharko du, eta kasu horretan proposamenen behin betiko klasifikazioa egin beharko du.

Kontratazio Organoak ekonomikoki abantaila handienak dituen eskaintza aurkeztu duen lizitatzailari ondorengo dokumentazioa aurkeztuko eskatuko dio, errekerimendu hori jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hamar eguneko epean:

1. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
2. Enpresaren aldi baterako batasunaren osaketaren eskritura publikoaren kopia, hala badagokio. Aldi baterako batasunaren ordezkaria edo ahaldun bakarra esleitu beharko du, kontratuaren eskubideak gauzatzeko eta bertan agertzen diren betebeharrak betetzeko, hura amaitu arte.
- 3.- Agiri honen 9. klausulan aurreikusitako behin betiko garantia osatu izana egiaztatzen duen ziurtagiria.
Garantia honela osatu ahalko da:
 - a) Esku dirua.
 - b) Kontratazio organoaren aurrean ordaindu beharreko banku abala.
 - c) rmao-n eragiketak egiteko baimena duen aseguru-entitatearekin kaudimen aseguru kontratuaren bidez. Aseguruaren ziurtagiria kontratazio organoari aurkeztu beharko zaio.
- 4.- Lizitazio iragarkien gastuak ordaindu izana egiaztatzen duen ziurtagiria.

Errekerimendua adierazitako epean betetzen ez bada, lizitatzailak eskaintza kendu duela ulertuko da. Kasu horretan, hurrengo lizitatzailari dokumentazio berdina eskatuko zaio, eskaintzen klasifikazioaren hurrenkeran.

Kontratazio Organoak kontratuaren esleipena adierazitako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost lanegunetan adostuko du, zuzenduta egongo dena hala badagokio, eta bi hilabeteko gehieneko epean proposamenak irekitzeko egunetik aurrera.

Esleipenak Kontratazio Organoak adostuko ditu arrazoitutako ebazpenean, lizitatuzaileei jakinaraziko zaie agiri honetan I. Eranskin bezala sartutako ereduaren arabera adierazitako bidearen bidez eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Publizitatearen kopurua enpresa esleipendunaren kontura izango da.

15.- KONTRATUAREN PERFEKZIOA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratua formalizatuz hobetuko da.

Kontratua dokumentu pribatu batean formalizatuko da, lizitatuzaileek eta esleipendunak esleipen jakinarazpena jaso eta hurrengo hamabost laneguneko gehieneko epearen barruan.

Esleipendunak, dena den, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eskatu ahalko du. Kasu honetan, formalizazio gastuak bere kontura izango dira.

Kontratatari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua adierazitako epearen barruan formalizatu ez denean, EKPk hurrengo lizitatuzaileari agiri honen 14. klausulan exijitutako dokumentazioa eskatu ahalko dio, hura aurkezteko hamar laneguneko epea eskainiz.

16.- KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak kontratuaren arduraduna esleitu ahalko du. Horri, gauzatzea ikuskatu eta erabakiak hartu eta beharrezko jarraibideak ematea dagokio, hitzartutako prestazioak egoki burutzen direla bermatzeko, berak egotzitako eskumen eremuaren barruan.

Kontratuko arduradunak emandako jarraibideak halabeharrez bete beharko ditu esleipendunak.

Ondorio hauetarako, gorabehera akta egiteko ardura izango du, kontratua gauzatzean hautemandako ez betetzeak salatuz eta gauzatze akasduna dela eta dagozkion zigorrak ezarri, agiri honen 20. Klausularen arabera.

EKPk kontratuaren arduradun berri bat esleitu ahalko du edozein momentutan, esleipendunari jakinarazi ondoren.

17.- KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua ondorengo baldintzen arabera gauzatuko da:

- Kontratua kontratistaren arrisku eta ausaz gauzatuko da.
- Kontratua termino eta baldintzen arabera gauzatuko da, Klausula Ekonomiko-Administratiboen eta Agindu Teknikoen Agiriaren eta kontratistak aurkeztutako eskaintzaren eta EKPk edo, hala badagokio, kontratuaren arduradunak emandako jarraibideen arabera.

- EKPk edozein momentutan eta edozein bideren bitartez kontratuaren betebeharrak betetzen direla eta kontratuaren prestazioak egoki gauzatzen direla kontrolatu, egiaztatu eta ikuskatu ahalko du.

Kontratistak ezin izango du EKPk egindako ikuskaritza eta kontrol lanak oztopatu.

- Kontratua indarrean dauden eta lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasun eremuan ezar daitezkeen lege, arau eta hitzarmen xedapenen menpe dago.
- Langile oro enpresa kontratistaren menpe egongo da bakarrik, eta honek enpresario baldintzari lotutako eskubide eta betebeharrak izango ditu, eta EKPr ezingo zaio lan harreman horietatik edo gainontzeko betebeharretatik erreklamaziorik egin.

Enpresa kontratista prestazioa gauzatzean lan egiten dutenekin lotutako istripu edo erreklamazio ororen arduradun bakarra izango da (judiziala edo estrajudiziala), berezkoa edo aldizkako azpi-kontratazioena, eta EKPk ez du enpresa kontratistak zuzenean edo zeharka duen lan (lan segurtasun, higiene eta osasunari dagokiona barne), Gizarte Segurantza edo zerga ardurarik onartuko. Era berean, enpresa kontratistak prestazioa gauzatzetik sortutako istripuetatik sor daitezkeen ardurak bere gain hartuko ditu.

- Kontratuaren xedeak ez du, inolaz ere, EKPren konturako izaera pertsonaleko datuen tratamendurik ekarriko.

Gauzak horrela, kontratua indarrean dagoen bitartean enpresa esleipendunak bere jardueren markoan egiten duen izaera pertsonaleko datuen edozein tratamendu bere kontura eta erabakiaren arabera egindakotzat joko da, tratamendu horren Arduraduna den heinean, eta Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta bere garapen araudian tratamendu horren ondorioz aurreikusitakotik sortako betebeharren betetzea bere gain hartuko du.

18.- KONTRATUAREN OINARRIZKO BETEBEHARRAK

Kontratistaren betebeharrak izango dira:

- Kontratua bertan zehaztutakoaren edukiaren arabera gauzatzea, baita agiri honetan zein eskaintzan ere.
- Emate, instalazio eta martxan jartzeko eskainitako epea betetzea.
- Eskainitako garantia epea betetzea.
- Hornikuntzaren instalazioa eta martxan jartzea.
- Bere jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren lizentzia eta baimen oro bere kontura lortzea.
- Kontratuaren arduradunak eta EKPk teknikariek emandako jarraibideak betetzea.

- Kontratuaren xedea gauzatzeko dagoen edozein gastu betetzea, zergak, tasak eta indarrean dauden xedapenen arabera.
- Kontratutako hornikuntza ematearekin lotutako langileei dagokienez lan eta Gizarte Segurantzaren eremuan indarrean dauden xedapenak betetzea.
- Konfidentzialtasun betebeharra bete, agiri honen 19. Klausularen arabera.
- Behin betiko garantia osatu eta mantentzea, agiri honen 9. Klausularen arabera.
- Kontratuaren xedea gauzatzea, momentu bakoitzean ezar daitezkeen indarrean dagoen sektore araudiari jarraiki.

Klausula honetan aurreikusitako betebeharrak oinarritzko kontratu betebehar izaera izango dute SPKLTBren 223.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta hura ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izan daiteke, EKPk hala eskatuta.

19.- KONFIDENTZIALTASUNA

Agiri honetan esleipenaren publizitatearekin eta lizitatzailerei eman beharreko informazioarekin lotutakoari kalterik egin gabe, Kontratazio Organoak ezin izango du lizitatzailerek konfidentzial bezala esleitutako informazioa hedatu, eta izaera honek sekretu tekniko edo komertzialetan eragin berezia izango du.

Kontratatutako kontratua gauzatzetik eta kontratuan izaera hori ematen zaion eskuratu dezakeen informazio horren izaera konfidentziala errespetatu beharko du, edo izaera dela eta horrela tratatu beharreko informazioa.

Bereziki, konfidentzialtzat joko dira, argitaratu edo hedatu ezin izango direla, edozein euskarriko informazio, dokumentu, artxibo edo zehaztapenak, kontratistari kontratua gauzatzearen ondorioz eman zaizkionak.

Konfidentzialtasun betebehar hau mugarik gabe mantenduko da.

20.- ZIGORRAK

Kontratatutako kontratistak, berari egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla eta, eskainitako gauzatze epeari edo kontratatutako prestazioen gauzatze akasduari dagokionean atzerapena sortu badu, edo kontratutako beste edozein baldintza bete ez duenean, EKPk kontratua suntsitu ahalko du, agiri honen 26. Klausularen arabera, edo harekin jarraitu ahalko du, kasu honetan EKPren aldeko kalte-ordain osagarriak ordaindu beharko direla, metatze-izaerarekin, astean 3.000€.

Kontratua gauzatzen jarraitzeko aukeraren kasuan ere, ez betetzeak jarraitzen duen bitartean, EKPk suntsitzea aukeratu dezake, lehen adierazitako ondorioekin.

Zigorrek kontratistari ordainketa oso edo zati bateko ordainketa gisa ordaindu beharreko kantitateak murriztuz gauzatuko dira, edo 9. Klausulan ezarritakoaren arabera osatutako garantiarena, dagokion erreklamazioa egingo da horretatik pasatzen den kopuruan.

21.- KONTRATUA UZTEA ETA AZPIKONTRATATZEA

Ezingo da kontratutik sortutako eskubide eta betebeharrak utzi, ezta kontratuaren prestazioak azpikontratatu ere.

22.- KONTRATUAREN ALDAKETA

Kontratua hobetu ondoren, Kontratu Organoak SPKLTBren 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan bakarrik aldatu ahalko du.

23.- ARDURA

Esleipendunaren betebeharra izango da hirugarrenei kontratua gauzatzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz sortzen zaizkien kalte-ordainak ordaintzea.

Kontratista garatzen dituen lanen kalitate teknikoaren eta egindako prestazio eta hornikuntzen arduraduna izango da, baita EKPrentzat edo hirugarrenentzat ez egiteen, akatsen edo kontratua gauzatzean erabilitako metodo ez egokien ondorioz sortzen diren ondorioena.

24.- KONTRATUA ETETEA

EKPk kontratua etetea adostuko balu edo SPKLTBren 5 ataleko 216. artikulua ondu ondorioz emango balitz (ondorio hauetarako ezarpen bezala ezartzen dena), oinarritu duten arrazoiak adierazteko eta hura gauzatzeko izatezko egoeraren Akta egingo da.

Etetea adostu ondoren, EKPk esleipendunari sortutako kalte-ordainak ordainduko dizkio.

25.- HARRERA ETA GARANTIA EPEA

Kontratatista hornikuntza eskaintzan ezarritako epean eta agiri honen 5. Klausulan ezarritako lekuan eman beharko du, agiri honetan ezarritakoa betez.

Kontratatista kontratua bete duela ulertuko da horren terminoen arabera eta EKPre oniritziarekin prestazioaren osotasuna egin denean.

Dena den, ematea, instalazioa eta martxan jartzea amaitzen denetik aurrera hilabete bateko epean haren harrera jarduketa emango da, emate eta martxan jartzeko akta sinatuz. Akta hori Proiektuan ezarritako baldintzak edo esleipendunak eskaintako osagarriak betetzen direna balioztatzen duen dokumentua sinatzea izango da.

Hornikuntza jasotzeko moduan ez balego, horrela adieraziko da harrera Aktan eta kontratatista bertan hautemandako akatsak zuzentzeko edo hitzartutakoaren arabera hornikuntza emateko jarraibideak emango zaizkio.

Hori guztia 20. Klausulan aurreikusitakoari kalterik egin gabe, eta EKPk dagokion kalte-ordaina eskatu ahalko du emate epean emandako atzerapenagatik, bere adostasuna lortzen ez duen bitartean.

EKPk kontratistak egindako prestazioa hura gauzatzeko eta betetzeko ezarritako xedapenei egokitzen zaion zehaztuko du, eta hala badagokio, kontratatutako zerbitzuak emateko eta harrera dela eta hautemandako akatsak zuzentzeko eskatuko du.

24 hilabeteko garantia epea ezarri da, emate eta martxan jartzeko akta sinatzen denetik aurrera edo, hala badagokio, esleipendunak eskainitako epe handiena.

Garantia epean hornikuntza ondasunean akatsak daudela hautematen bada, Kontratazio Organoak kontratistari hura berriz jartzeko edo konpontzeko eskatu ahalko dio.

EKPk garantia epea bitartean hornikuntza behar den helbururako egokia ez dela ikusten badu, kontratistari egotzi ahal zaizkion akatsen ondorioz, eta hura berriz jartzea edo konpontzea xede hori lortzeko nahikoa ez dela uste bada, epe hori igaro aurretik ukatu ahalko du, kontratistaren kontura utziz eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuz edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izanik.

26.- KONTRATUA SUNTSITZEA

Kontratua suntsitzeko arrazoiak izango dira SPKLTBren 223. artikuluan aurreikusitakoak, a)- letrak, 85 b), d), f), g) eta h) artikuluan ezarritakoari eta, orokorrean, kontratuaren betebeharrak ez betetzeari kalterik egin gabe, Kode Zibilaren 1.124 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako suntsitzeko kasuetan, automatikoki jardungo du, EKPk kontratistari horretarako erabakiaren jakinarazpen fede-emailea egiteko baldintza bakarrarekin.

Jakinarazpen hori jaso ondoren, kontratistak EKPk kontratua dela eta momentu horretara arte egindako edo sortutako dokumentu guztiak berehala entregatu beharko dizkio, bere esku jarritz, eta guztiak EKPre jabetza izatera pasako dira. Era berean, EKPk entregatutako materiala osotasunean eta mantentze baldintza egokietan itzuli beharko du.

Ondorio hauetarako, gauzatze egoeraren Akta idatziko da, EKPk entregatu eta jasotako dokumentu eta lan guztiak zehazteko, eta ez jaso edo ez entregatu bezala daudenak, baita horiek ez jasotzeko arrazoiak ere. Modu honetan, EKPk kontratua gauzatzen jarraitu dezake, berak edo hirugarren batek.

Hori guztia dagokion aurreragoko kontratuaren likidazio ekonomikoari kalterik egin gabe, ondoren adierazitakoaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik kontratuaren suntsipenetik sor daitezkeen ardurak ekonomikoak, baita legalki egokiak izan daitezkeen besteak ere, kontratua eraginkorki suntsitu ondoren eta dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren likidatuko dira, eta ez da EKPk gauzatzen jarraitzeko oztopoa izango.

Suntsiarazpen kasu guztietan, kontratistak egindako lanen osotasunaren prezioa jasotzeko eskubidea izango du, printzipioz.

Kontratuaren suntsiketa kontratistari egotzi ahal zaion edozein arrazoiarengatik ematen denean, EKPre alde ordainduko da, egokiak diren edozein kalte-ordainen osagarri bezala, metatze izaerarekin, kontratuaren prezioaren %15ari dagokion kantitatea.

Bi kantitateak kontratistari ordaintzeke dagoen prezioetik kenduko dira edo 9. Klausularen arabera osatutako garantiatik, dagokion erreklamazioaren xedea izango dela eta, hala badagokio, soberakina erreklamatu ahalko da.

27.- ERREGIMEN JURIDIKOA

Prestaketa eta esleipenari dagokionean, kontratuak Klausula Ekonomiko-Administratiboen Agiri hau eta Baldintza Teknikoen Agiria jarraituko du, eta bertan agertzen ez denean, EKPren kontratazio barne jarraibideak eta SPKLTBren horretarako ezarritako arauak (botere esleipendun izaera duten eta Administrazio Publikoa ez diren sektore publikoko entitateen egindako erregulazio harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuentzat).

Ondorio ekonomikoei eta suntsitzeari dagokionez, kontratuak Klausula Ekonomiko-Administratiboen Agiri hau eta Baldintza Teknikoen Agiria jarraituko du, eta bertan adierazten ez denerako zuzenbide pribatuko arauak, kontratua aldatzeari dagokionean salbu. Bertan, SPKLTBren I. Liburuaren V. Tituluan ezarritakoa ezarri ahalko da.

Modu osagarrian, SPKLTBak, Sektore Publikoko Kontratuen Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak eta APKLEOk agiri hau araudi testu horietara zuzenean bideratzean ezarri ahalko dira.

28.- JURISDIKZIOA

Jurisdikzio ordena zibilak aldean artean kontratua prestatzeko, esleitzeko, ondorioetarako, betetzeko eta iraungitzeko sortzen diren gatazkak konpontzeko eskumena duena izango da.

Kontratuarekin lotuta auzirik egotekotan, aldeak Donostiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzio barruan egongo dira.

I. ERANSKINA ERANTZUKIZUNPEKO AITORPEN EREDUA

“.....JAUN/ANDREAK,
helbidea.....
.....-(e)n duenak, NAN zk.....,
telefonoa....., helbide
elektronikoa....., bere gaitasun juridikoa eta jardutekoa duenak,
bere izenean
(edo.....(r)e
n ordezkaritzan,
helbidea....., eta
NAN edo AIZ zenbakia [Pertsona fisiko edo juridikoa bada]
.....,hornikuntza, instalazioa eta martxan jartzea kontratatzeko
[...] lizitazioa, prozedura irekiaren bidez, zuzenduko duen Klausula Ekonomiko-
Administratiboen Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria ezagutzen duenak,

AITORTZEN DU:

Lehenengoa.- Eskaintza hau aurkezterako momentuan, [...] (r)ekin kontratatzeko legeak ezarritako baldintza guztiak eta Klausula Ekonomiko-Administratiboen Agirian exijitutako gaitasun eta kaudimen irizpide guztiak betetzen dituela.

Bigarrena.- *(Enpresari talde berdineko enpresek -Merkataritza Kodearen 42.1 artikulua kasuren batean daudenak ulertuta- kontratua esleitzeko prozesuan aurkezteko banakako proposamen ezberdinak aurkeztearen kasuan sartu beharrekoa).*enpresaren sozietate talde berekoa den enpresak lizitazio honetan proposamena ere aurkeztuko duela.

Hirugarrena.- *(Atzerriko enpresen kasuan sartu beharrekoa).* Ordezkatzen duen enpresa edozein ordenan espainiar Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren menpe dagoela, kontratutik modu zuzenean edo ez zuzenean sor daitezkeen gorabehera guztientzat, eta dagokion foru atzerritarra ukatuko du.

Laugarrena.- [...] (e)k lizitazioa dela eta egin beharreko edozein jakinarazpen jasotzeko lehenetasuna duen bide gisa honakoa adierazten duela:

- Faxe:.....
- Helbide elektronikoa:.....
- Gutun ziurtatua:.....

Bosgarrena.- Kontratatzen duen entitateak lizitazio, esleipen eta gauzatze (esleipenduna izatekotan) prozesutik, hura amaitu arte, sor daitezkeen datu guztiei erakunde gardentasuna ematea onartzen duela.

.....(e)n, 2017ko(r)en.....(a)n
Sin.:

II. ERANSKINA ERANTZUKIZUNPEKO AITORPEN EREDUA

“.....JAUN/ANDREAK,
helbidea.....
.....-(e)n duenak, NAN zk.....,
telefonoa....., helbide
elektronikoa....., bere gaitasun juridikoa eta jardutekoa duenak,
bere izenean
(edo.....(r)e
n ordezkaritzan,
helbidea....., eta
NAN edo AIZ zenbakia [Pertsona fisiko edo juridikoa bada]
.....,hornikuntza, instalazioa eta martxan jartzea kontratatzeko
[...] lizitazioa, prozedura irekiaren bidez, zuzenduko duen Klausula Ekonomiko-
Administratiboan Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria ezagutzen duenak,

AITORTZEN DU:

Bakarra: Azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 60.1 artikuluan eta gaiaren inguruko indarrean dauden gainontzeko xedapenetan jasotako kontratatzeko ezgaitasun eta debekuak ez dituela.

.....(e)n, 2017ko(r)en.....(a)n

Sin.:

III. ERANSKINA PROPOSAMEN EKONOMIKOKO EREDUA

.....JAUN/ANDREAK, helbidea: eta NAN zk.
.....duenak, bere izenean edo(r)en ordezkartzan, helbidea
..... eta NAN edo AIZ zk., bere gaitasun
juridikoa eta jardutekoa duenak, lizitazioa, prozedura irekiaren bidez, hornikuntza,
instalazioa eta martxan jartzeko kontratazioa zuzendu behar duten Klausula
Ekonomiko-Administratiboan eta Baldintza Teknikoen Agiria ezagutzen duenak, honen
bidez,

AITORTZEN DU:

1. [...] (r)en hornikuntza, instalazioa eta martxan jartzea egiteko konpromisoa hartzen duela prezio honetan:
 - [Letra eta zenbakian adierazi] euro, dagokion BEZan handitutakoak, hau da, [Letra eta zenbakian adierazi] euro.
2. Kontratuaren xedea den hornikuntzaegunetan emateko, instalatzeko eta martxan jartzeko konpromisoa hartzen duela.
3. hilabeteko garantia epea emateko konpromisoa hartzen duela.
4. Klausula Ekonomiko-Administratiboan Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria ezagutzen duela, berariaz eta osotasunean onartzen eta betetzen duena.
5. Kontratu hau egiteko indarrean dagoen araudiak exijitutako irizpide eta betebeharrak guztiak betetzen dituela.
6. Era berean, lan, prebentzio eta zerga eremuan indarrean dagoen araudia beteko duela.

(Lekua, data eta proposamen egilearen sinadura)